

# MUSIKA ETA NIRE AMETSAK

Jose Luis Insausti



Azken urte hauetan gure herriko musika eta koral inguruko talde ezberdin askorekin elkar lanean aritzeko aukera izan dut, gure herrian antolatu diren ekitaldi ezberdinak direla eta. Beraien jarrera, ezin hobia izan da beti, eta ekitaldi ezberdinak euren musika doinuekin goxotu dituzte erabateko laguntza eskainiz gainera.

Hortxe ditugu, Amulletako danborren Kofradia, Errenteriako Musika Kultura elkarte, Ereintza elkarte-ko txistulariak, Oreretako dultzaina joleak, trikitalariak, Lagunak Txaranga eta Landareko Txistulariak zein abesbatza.

Idatzi hau, hauei guztiei egin nahi diedan omenaldi xumea baino ez da eta bide batez eskerrik zintzoe-  
nak emateko bide izan nahi du, eskerrak, Landare Elkartearen izenean, eta nire izenean ere.

Azken hilabeteetan, lan hau prestatzen niharduen bitartean, sentrazioak, eta urte hauetan nire egune-  
roko bizimoduan eragina izan duten sentimenduak, zein nire inguruan izan ditudan kultura harremanen alda-  
ketak bildu eta horien islada erakutsi nahi izan dut.

Uste dut, hurbileko mendietako haizearekin solasean, hitzek bere esanahia galtzen dutela, ordea, beti  
aurkitzen da isiltasun amaigabe horretan beste mundu ezberdin bat, bakardadean, beste mundu baten esisten-  
tziaz jabetzen gara.

Irudimena eta errealitatea lotzen dituen lokarri finak, izpiritua eta materia batzen ditu gure nortasuna  
eta pertsonen arteko adiskidetasunaren balioa haztea ahalbidetuko duen gunearen bilatze bidean.

# ARGIA

Argiak, iluntasuna aldendu du, maitasuna, beldurra.  
Zure bihotzean, maitasuna bor-bor, eta tristura.  
Jakinduriak jantzi zaitu, eta musikarekiko zure borondateak  
zure barnean darrai  
aldendu gaitzake, ordea, egunerokoak, tentsioak...  
Izan indartsu, ez aldatu  
indar horrek, bizitzari aurre egiten lagunduko dizu  
izan indartsu eta eskuzabal  
izpi amaigabeak zure bihotza argi dezan



## MUSIKA ETA NIRE AMETSAK

Bizitzaren bihotz taupadek, garrasika aldarrikatzen dute nahitaezko sentsibilitate aldaketa gizakia eta honen sormenarekiko. Milurteko berriak, bi esanahi ditu bereziki musikari dagokionean: batetik, ezagutu, praktikatu eta garai guztietako heredentzian sakontzea. Bestalde, ezin bestekoa da sormenak, zubi eta lokarri moduan dugun ondarerik ederrenetako baten, musikaren, zaindari izateko esna mantentzen gaitzan.

Musika notek beti daramate mezua, bihotzak uler dezakeen mezua. Musika notak argia dira hasieran, argia amaieran, eta bide osoan dira argi amaigabea. Musika entzuterakoan, itxi begiak, hartu arnasa, sakonki, azken zirrikitu bate arte eta bidaiatu lasai mugarik gabe. Musikariak, musikaren bidez eskaintzen digu daukan hoberena, eta musika hori gure barnean isurtzerakoan, musikaria eta biok, bat gara.

Gutariko askok sentitu du barnean, noizbait asaldatu duten musika notak, eta hauekin, sormena betiere emankorragoa zaigu. Musikariaren lana dugu musika sentitzen jakin eta adieraztea.

Amesten duzuen guztioi, amets bat baldin baduzue, hura zein den aintzat hartu gabe, ez ezazue etsi, ez galdu inoiz amets hori errealitate bilakatzeko esperantza eta gogoa.

Zailtasunek amore emateko zorian jarriz gero, indar handiagoz eutsi, saiatu etengabe, inoiz ezin baitaiteke jakin noraino irits gaitzkeen. Borrokatu, ametsak uste baino sarriago bihurtzen baitzaizkigu errealitate.

Musika eta musikariei buruz hitz egiten hasita, ezin ahaztu hilero Ereintza taldeko txistulariek eskaintzen diguten kontzertua. Bereziki, apirilaren 29an, igandea, eskaini zutena ekarri nahi dut zuen gogora. Arratsaldeko 7:30etan Udaletxeko arkupetan euskal doinu bilduma zoragarri batekin gozatzeko aukera izan genuen. Hauetaz gain, "El Acebro de la Caridad" akordeoi eta gaita joleen Asturiar taldearekin, Asturiar doinuez ere gozatu genuen. Azkenean, Ereintzako Txistulari taldeak eta Asturiar taldeak azken hauen herriko bi abesti jo zituzten elkarrekin. Doinu horiek Ixiar Buselok, txistulari taldearen zuzendariak, egokitu zituen.

Bi kultura arras ezberdinak, urrutikoak biak eta musikaren bidez, ordea, hurbil oso. Eskerrik asko eskainitako kontzertuagatik, hain ezberdinak diren bi kultura hauen doinuek hunkitu gintuztelako bertan geundenak.

Azkenik, nola ez, eskerrak eman behar dizkiot Ereintza elkarteari kultur ekintzen trukaketagatik, eta jarrai ezazue herrien arteko kultur ulertze bide honetatik.

